

# ZAINAK 31 ETA 32

## HIRI GLOBALAK ETA KULTURA LOKALAK

Lan Kolektiboa. Iñaki Homobono eta Isusko Vivas (editore literarioak)

Eusko Ikaskuntza,

Donostia, 2010

2007ko udazkenean, oraintsu hiru urte biribil beteak hain justu ere, Eusko Ikaskuntzako *Antropologia-Etnografia Sailak* Bilbon antolaturiko hiri-antropologiari buruzko *III. Jardunaldien* ondorengo monografiko bikoteak 2010ean ikusi du argia, *Zainak* aldizkariaren hurrenez-hurreneko bi zenbaki berezi osatuz, honako erreferentzia bibliografikoarekin: Homobono Martínez, José Ignacio; Vivas Ziarrusta, Isusko (ed. lit). *Zainak 31-32. Ciudades globales y culturas locales*, Eusko Ikaskuntza, Donostia: 2010; 1.320 or. guztira. ISBN: 978-84-8419-189-6. ISSN: 1137-439X.

Globalizazio-prozesuan bete-betean murgildurik gabiltzala, nazioarteko fluxu kulturaletara atxikitako dinamikak agerian jartzen dituzten lurralde-maila desberdineko entitateak eta sareak sortzen dituzte hiriek. Alabaina, mugikortasun itzelaren, finkapen ezaren eta lurraldetasun kontzeptuaren eraldaketen zein anbigutasunaren eraginpean ere, toki-lekuaren eta hiri-espazioaren kategoriek garrantzitsuak jarraitzen dute izaten identitatearen berrezarpenerako, kultura lokalen nahiz gero eta indartsuagoak diren kultura iragankorren baitan. Bien bitartean, ondarearen berregituraketaren eta sozio-komunitateko gizarte-taupada berrien parean segregazioa eta bestelako jazarpenak gertatzen direla kontu egiten duten ikuspuntuak ere askotariokoak eta sano emankorrak izaten dira.

31. zenbakiko aurkibideak Iñaki Homobonoren eta Isusko Vivasen sarrera luze baten ostean atal erakusten dizkigu. Lehená Élisée Reclus geografó ezagunari eginiko omenaldia litzateke, *hiriak eta haien eboluzioa* izenburupean. Bigarren atalak espazio publiko urbanoan zentratzen du begirada, soziabilitatearen eta irudien produktioaren artean. Hirugarren atalak komunitatea, mugikortasuna eta garapena ditu hizpide, hiriaren 'cronotopos' deritzona aztertuz; honekin batera laugarren atalean *lurraldeak, paisaiak eta nortasunak agertzen zaizkigu*: globalizazio-garaiko ondare kulturala. Zenbakiari amaiera emateko gizarte-mugimenduak eta hiritartasunaren parte-hartzeko estrategiak aipatzen ditu bosgarren atalak.



1. irudia. *Zainak 31* eta *Zainak 32* aleen portada. Élisée Reclus geografóaren aurpegia lehen planoan, atzeko hiri-eszenatokian Brooklyn-eko zubi ospetsua duela eta Manhattan-eko lehen haize-orraziak laino artean.

32. zenbakiaren hastapenean arteari eta estetikari zuzen-zuzenean dagokion seigarren atala aurkituko dugu: *sinbolo estetikoak eta irudizkoaren (imaginarioaren) konfigurazioa gaur eguneko hirietan*. Bertan interes nabariko ekarpenak izango ditugu: Leire Fernandezek kultura grafiko lokalak, toki-espazioaren eratzailerak denak Juan L. Tobosori bidea zabalduko dio, *arte-arkitektura binomioarekin kateaturiko antropologia eta gizarteko diskurtso hibridoak planteatzen dituen autorea; topaketaren estetikarekin espazio publiko garaikidea berrinterpretatzen*. Antonio Delgadok zentzu praktikoarekin berpiztuko duen gaia, Portugaleko hiri txiki batean gertaturiko interbentzio urbanistiko zalantzagarrria paradigma legez identifikatuta: ingeniariaren estetikatik ekonomistaren estetikara, Alcobaça-ko adibidea. Iskandar Rementería filosofoa *hiri-paisaia garaikidearen eta irudimenezko begirada estetikoaren arteko erlazioetan barneratzen da perspektiba estetiko eta sinbolikoa nagusituz*.

Esandakoari lotuta, garapen historikotik abiatuz hiriaren irudi berrira doan

haria tentetzen du zazpigarren atalak; *planifikazioa, etxebizitza eta zaharberritzea bezalako nozioak eguneratuz*. Geroago, zortzigarren atalean gentrifikazioari eta gizarte-desegituraketari atea irekitzen zaie, komunitateetan zeresan handiarekin atzematen dugun afera kezagarria. Azkenik, bederatzigarren atalak kultura anizkoiztasunaren adierak dakarzkigu gogora, migrazio-tendentzia internazionalen eta ordenazio sozio-espazial aldakorren eskutik.

Bukatze aldera, 2000. urtetik 2008. urterako bibliografia osagarri edo gehigarriarekin (hamargarren atala) bizpahiru liburu-aipamen eskaintzen zaizkio irakurleari; antropologia, artea, ondarea edota generoa lantzen dituzten argitalpenen berri zehatza emanaz. Orotara hogeita hamar lan inguru biltzen duen monografiko pareak, izen handiko ikertzaileei espresuki enkargaturiko testuak barne, tokian tokiko jardueretan eta Bilboko Itsasadarrean gora lñaki Uriarte arkitekto ezagunarekin buruturiko paseoan eginiko argazki sortarekin osatzen da.

Isusko Vivas Ziarrusta